

Tilosetako arbola ipurdiak aglomeratuz tapatu dituzte

■ Zenbait kejaratu egin omen da arbolak lehortuko direla-eta ■ Arbola ipurdiak tapatzeak ez ditu ezkiak hondatuko; lehengo putzuek bai ordea, *Goroldiren* esanetan.

HERRITAR batzuk udalera bidalitako kejak eraginda, tilosetako pasealekua berritzen eta txukuntzen ari dira. Egin duten lanetako bat, arbola ipurdiak galipotaz hartzea izan da, sortzen ziren putzu “zikinak” ezkutatze aldera.

ZENBAITEN KEZKA

Herritarren batzuk beldur omen dira, ipurdiak tapatuta, arbolak lehortu egingo direla usteta; ur faltagatik-edo.

GOROLDIREN BALORAZIOA

Goroldi da lanak egiten ari den enpresa. Tilosetako ezkien (tiloak) egoera aztertu du: arbolak nahiko egoera txarrean daude eta arrazoietakoa bat arbola ipurdietako putzuak dira. Lurraren drenaje faltak putzuak eragiten ditu, eta putzu hauek arbola usteltzen dute poliki poliki. Ura joateko zuloak eginez gero, zainak hautsiko litzaizkieke ezkiei.

Erremediorik onena arbola ipurdiak aglomeratuz hartzea omen da eta Tilosetako zoruari, zulo batzuk irekitzea, arbolek ura hartu eta arnastu dezaten.

Beldurrak uxatzeko, *Goroldik* dio arbolek behar duten ura kapilaridadez (azpiko urak zainetara erakarrita) hartzen dutela. Gainera, neurri horretako arbolek ez dute urik hartzen ipurdi inguruan, zain muturrak oso urruti dituzte-eta. □

Konstituzio egunean lan egiteko deia

■ Udaleko langile batzuk, zenbait komertzio, AEKk... lan egingo dute ■ Asteazkenean mahai ingurua.

SANTIAGO eta Pilarika egunetan bezalaxe, Konstituzio egunean (asteazkena) zenbaitek lan egingo du, egun horiek “izaera espainiarra” dutela-eta. Egitasmoaren bultzatzaileek esan digutenez, datorren urterako ordezkoi jai egunak pentsatzen ari dira dagoeneko.

KONTZENTRAZIOA ETA MAHAI INGURUA

Asteazkenean kontzentrazioa izango da Plazan eguerdiko 13:00etan. Ilunabarrean, berriaz, mahai ingurua “Desobedientzia zibila” gai hartuta: talde ezberdinetako jendea izango da hizlari, Biterin 19:30etan. □

■ BOLEIBOLA (EUKAL LIGA)

Sestao 1 - UPV Hernani 3

■ Jarraian irabazten duten 8garren partidua da ■ Jubenilek galdu egin zuten Sapuherriren kontra, 3-0.

BORROKATUTA, baina UPV Hernani nagusitu zitzaion larunbatean, sailkapenean bigarren postuan zegoen Sestaoi; hernaniarrak lider dira 19 punturekin. Jokoak: 25-19, 22-25, 22-25, 21-25.

JUBENILEK EZIN

Senior mailan jokatzeko ari diren jubenilek 3-0 galdu zuten larunbatean. Azken aldian irabazi ezinda dabilta hernaniar gazteak. Jokoak: 25-18, 25-18, 25-19. □

■ ESKUBALOIA

Hernani 15 - Elgoibar 10

■ 4garren postuan dira orain hernaniarrak.

ATZOKO partiduan, nahiko ondo irabazi zion Hernanik Elgoibarko taldeari. Hernaniarrek partidu ona egin zuten orokorrean; defentsa onean oinarritu zuten garaipena. Elgoibartarrak ziren sailkapenean juxtu Hernaniren aurre-

tik, eta orain bi taldeak puntu berdinekin gelditu dira.

GOLEGILEAK:

Oihane Etxeberria 5, Ruth Penas 5, Eliuska Ganborena 3, Belen Diaz 1 eta Begoña Unanue 1. □

GAZTEENTZAKO VI DANTZA LEHIAKETA

Asteasuko bikotea nagusi atzo, Plaza Berrin

■ Mikel Mujika eta Nagore Narbartek irabazi zuten ■ Lierni Martiarena hernaniarra bigarren izan zen Aritz Martin sestaoarrarekin.



Txapeldunak dantzari; orduerako irriparratsua.

HAMABOST bikotek parte hartu zuten atzo 14 urtez azpikoentzako dantza sueltotxapelketan.

HERRIKO ONENAK

Hernaniko neska dantzari onena Lierni Martiarena izan zen; mutilik onena, berriaz, Aimar Abad. Jantzirik ederrenaren saria Donostiako Jon Agirretxe eta Andrea Pozak eraman zuten.

SAILKAPENA

Txapeldun

Mikel Mujika 215 puntu
Nagore Narbarte

Bigarren

Aritz Martin 211 puntu
Lierni Martiarena

Hirugarren

Joseba Apaolaza 207 puntu
Irati Imaz



Nº 02.819 Zkia.

GALERIAS BUEN PRECIO, AITOR PEÑA, ARETZE HARATEGIA, JAIONE KONJELATUAK, LIRAIN MODAK, NORDKAPP MODAK, IMAGE CENTER J.A.TORRES, LOHER MODAK

Dendari hauek 20 Pztako partaidetza oparitzen dizue, 2000ko abenduaren 22an zozketatuko den Loterian.

Zuen konfidantza eskertzen dugu.
ZORTE ON !



Skoda Fabia

FABIA bat 1.375.000 ptatik.* (8.263,99 euro*)

* Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa. *Koda Fabia Classic 1.4 60 CV, Garraioa, Zerga eskaintza bereziak, plana barne. Stockeoko autoentzat baliogarria. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4

**Hernaniko
Kronika**

interneten:

www.hkronika.com

SERGEI VOITENKO (AKORDEOI JOLEA)

Kontzertua emango du gaur Biterin

■ *Arrasate Hiria* txapelketako irabazlea, iaz ■ Aurten, 5 kontzertu emango ditu Euskal Herrian ■ Gaur Hernanin: Biteri kultur etxean arratsaldeko 19:00etan.

27 urteko errusiarrak palmares izugarria du akordeoia- ren munduan. Hernaniko kontzertuaren aitzakian hitz egin dugu berarekin.

■ **KRONIKA:** Zer behar da akordeoi jole handia izateko.

SERGEI VOITENKO: Irakaskuntza eta irakasleak onak izan behar dute. Nik zortea izan dut A. Kats eta F. Lips irakasle izan ditudalako. Kalitate oneko musika jotzea eta konposatzaile onekin kontaktuan egotea ere beharrezkoa da. Beste musikoe- kin ganbarako musika jotzean, haiek daukaten onena hartzen ikasi behar da. Konkurtsoetan parte hartzea ere garrantzizkoa da esperientzia handia eta hel- dutasuna ematen dituelako.



Sergei Voitenko pentsakor.

■ **Euskal akordeoilariak zer moduzko maila dute?**

Zoritxarrez, lehiakide izan naizenean Gipuzkoako akor-

deoi lehiaketa ikusteko aukerarik ez dut izan; baina, Iñaki Alberdi, Iñigo Aizpiolea, Aitor Furundarena... izen hoiek ikusita, maila oso ona izango dela uste dut. Aurten kontzertuak ematera etorri naizenez, denbora izango dut zein maila duten konprobatzeko.

■ **Aurrerantzean zein asmo eta helburu dituzu?**

Oraintxe CD bat grabatu dut orkestra batekin, eta kaleratu zain nago. Konposatzaileekin elkarlanean hasi nahi nuke, akordeoiarako gehi- go konposatu dezaten. Kontzertuak, berriz, atentzioa deitzeko modukoak eman nahi nituzke; umeei begira batez ere, etorkizuna hor dago-eta. □

JASOTA BEZALA

...Buelta erdi bat bentaja !!

Hemen, azarora udaberri da. Hemen, ilargia aldrebes hazten da. Hemen, bihar da dagoeneko. Nahiko lo egin dugu, jeiki eta hor oraindik ere atzo izango da. Lasai, iritxiko zarete...

Australiako basamortuan, ezere- zaren erdi-erdian, zer? eta euria ari du; uholdeak, azken urteetako tanta errekorra; munduak, lehor- te handiagoaren premiarik ez dugula antzeman nonbait...

Baina hala ere, erreta gabilta, kixkalita. Kanguroei, koalei, kakatuei, sugeei eta musker erraldoiei begira; Uluru eta Kata Tjuta mendi kozkorretan buelta- ka, Australiako desertu bukaez- nean, beso gainak sutu zaizkigu. Eta gure kontzientzia xuriei ere, erre usaina darie "aborigen" dei- tutako jatorrizko australiarrak (Australia, Australia ez zeneko- ak) ikusten ditugun aldiro. Lar- ru azala ikatz, begi txiki hondora- tuak eta sudurra zabal, bere one- tik irtenda bezala topatu ditugu gehienak, begiratu galduak, gogo

utziak, eurena ez den ipuin bate- tara ekar arazitako pertsonaiak Aai..., kontraesanen gimnasia nekagarri hori...

Hiru bat astek alde egin diote egu- tegiari eta basamortuko zeharkal- dia bukatzeaz da (lehortea ere bukatuko ote...?); Australia han- dia hegoipar ebaki ondoren, Koral

itsasoan, tiburoi artean, igeri saio batzuk egitera goaz. Hortz arras- toren bat gora behera, laster gara etxera bueltan. Etorkizunetik, udaberritik, muxu gozo bana.

Susi, Marijo, Maialen eta "Pangea"ko lagunak.



Hiru hernaniarrak, lasai, auskalo non.

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Mulixkon. Sarobeko *artamugarria* edo ardatza

■ **Asmatu dutenak:** Maddi Iradi (Aurreko astekoa ere asmatu zuen; ez genuen zerrendan jarri), Joxe Mari Zelarain.

■ **Saria:** *Venta Berri* jatetxean bi lagunentzako afaria eta *Kronikaren* urteko bildu- ma (urte bukaera bitartean gehien asmatzen ditue- nak).

■ **Sailkapena:**

- | | |
|----------------------------------|----|
| 1.- Joxe M ^a Zelarain | 13 |
| 2.- Putre | 11 |
| 3.- Maddi Iradi | 11 |
| 4.- Denis Sorondo | 10 |
| 5.- Marian Apezetxea | 10 |
| 6.- Leyre Larrañaga | 7 |
| 7.- Asier Larrañaga | 6 |
| 8.- Garikoitz Izagirre | 3 |

Jatetxea

Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
LARUNBATETAN ITXITA

HITZ BITAN

✓ **EUROPAKO ESTATUBURUEN GOIBILERA NIZAN**

EHk autobusak aterako ditu Nizara joateko.

Bilera horietan zenbait eskubide “desagertarazi” nahi dituztela dio EHk; “Aterpe Politikoaren Eskubidea” adibidez. Amnistia- ren Aldeko Batzordeek bilera hoi- etara “presoen aho- tsa” eraman nahi dute, eta jende- ari dei egiten diote joateko. Autobusak litera eta guztikoak izango dira. Izen ematea eta informazio gehiago Garin Tabernan. □

AGENDA

❖ **ERAKUSKETA**
Alberto Elosegiren argazkiak.
Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argaz- ki erakusketa
Zumardi jatetxean.

ASTEBURUKO EMAITZAK

■ FUTBOLA

3. maila: (Mutilak)
Hernani 1 - Lemoa 1

Gorengo maila: (mutilak)
Hondarribi 1 - **Hernani 2**

Gazteen liga nazionala:
Hernani 1 - Zalla 1

Gazteen Ohorezko liga:
Beasain 1 - **Hernani 1**

Gazteen 2. maila
Danena 2 - **Hernani 2**

Kadeteen Ohorezko liga:
Hernani 2 - Eibar 0

Kadeteen 2. maila

Hernani 1 - Idiazabal 1

Haurren Ohorezko liga
Aloña Mendi 1 - **Hernani 1**

■ ERRUGBIA

1 Liga Nazionala
Iruñea 8 - **Hernani 16**

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
CV Antoni Trueba 1
UPV Hernani 3

Euskadiko liga
Sapuherrri 3-
Hernani K.E 0

■ ESKUBALOIA

2. Nazionala

Hernani 15 - Elgoibar 10

PELOTA

ETB-DV Torneoa

Huarte - Gorriti 22
Erroizena- Argote 13

Paleta Goma Gipuzkoako Txap.
E.Lasa-A.Martinez 30
Mendizabal- Zubeldia 22

Paleta Goma:
Grijalbo-Manzisor 30
Aia 24
Kadeteak Eskuz Binaka

Otegi-Leonet 22, Olalde 0

Pala Motza:

Ugarretxena-Galarza 40,
Beloki 33

Kronika Eskupilota liga
Tutu-Iturbe 22
Xapo-Itxatxo 16

■ MAHAI TENISA

2. Maila nazionala:
A.Easo-Hernani 2- N.Pamp. 4

Lehen Maila:
Lasarte Oria 4 - **Hernani 3**

2. Maila probintziala
A.Easo-Hernani 0- Antzizar 7

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Anbulatorioa: 943 557750

⛑ FARMAZIAK

► Egunez: Chucla Kardaberaz 48
☎ 943 551793
► Gauez: Vidaur Lasarte, Jaizkibel Plz.2
☎ 943 362652
⛑ **ASTEARTEA**
► Egunez: Correa Antziola 44

☎ 943 551933
► Gauez: De Miguel Lasarte, Nagusia 32
☎ 943 361556

⛑ ASTEAZKENA

► Egunez: Bulnes Etxeberri
☎ 943 557738
► Gauez: Tanco Urnieta, San Juan 36
☎ 943 550942



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak